

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak berretsi du Gobernuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko duen konpromisoa

Foru Exekutiboaren kontseilariekin eta beste erakunde batzuetako ordezkariekin batera parte hartu du Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta eguerdian egin den kontzentrazioan

Ostirala, 2019.eko martxoak 8

Nafarroako Gobernuak gaur goizean bat egin du gaur, ostirala, martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Egunarekin, eta kontzentrazio isila egin du. Ekitaldia Nafarroako Jauregiaren fatxada aurrean egin dute, Iruñeko Carlos III. etorbideko 2an, eta bertan izan dira Nafarroako Lehendakaria, Uxue Barkos, Ayerdi eta Laparra lehendakariordeak eta Beaumont, Olo, Herrera eta Aranburu kontseilariak.



Kontzentrazioa Nafarroako Jauregiaren aurrean.

Halaber, bertan bildu dira Nafarroako beste erakunde batzuetako arduradunak, tartean, Gobernuaren delegatua Nafarroan, José Luis Arasti, edota foru parlamentariak. Nafarroako politikako arduradunekin batera bildu dira, baita ere, Nafarroako Gobernuko hamar bat zuzendari nagusi eta berrogeita hamar bat pertsona.

Kontzentrazioaren amaieran, Barkos Lehendakariak komunikabideen galderei erantzun die, "gaur jai-aldarrikapena dela erakusteko, baina aldarrikapena, gaur inflexio-puntua duena, baina arlo guztietan eguneroko borroka dena". Berdintasunaren inguruan indar politikoen argazki unitarioaz galdetu diote, eta Barkosek ondorengo adierazi du: "Komunitate honetan benetako ordezkari izateko duen inork ez du gaur zalantzan jartzen gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borroka, eta horrela ikusten jarrai dezagula beti".

Adierazpen instituzionala

Halaber, gogoratu behar da Foru Exekutiboak pasa den asteazkeneko bileran onartu zuela [adierazpen instituzionala](#), eta bertan beste behin adierazi nahi du "konpromisoa duela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, eta, era horretan, egungo defizit demokratikoa

desagertzeko lan egin behar dela. Izan ere, gaur egun oraindik badira barneko eta kanpoko oztopoak, emakumeek gizartean, ekonomian, lanean eta politikan duten parte-hartzea ikusezin bihurtzen dutenak eta parte-hartze horri merezi duen aitorpena kentzen diotenak".

Adierazpen instituzionala bat dator aurten Nazio Batuen Erakundeak hautatutako goiburuarekin: Pentsa dezagun Berdintasunez, eraiki dezagun argitasunez, berritu dezagun aldatzearen. "Genero-berdintasuna babestu beharra dago, Garapen Jasangarriaren helburuetatik abiatuta, eta zeharkakotasunez politika publiko guztietan integratuz bai gizon-emakumeen berdintasunaren printzipioa, bai genero ikuspegia".